

## VITORIA-GASTEIZ HOBETUZ. BIDERAGARRIAK DIREN PROPOSAMEN BALORAZIO TEKNIKOA

IdProposamena	Kodea	Titulua	
			Balorazio Teknikoa
3	A01	Salburuako iturriak, Parkera sartzeko ate duina	Oso komenigarria dela jotzen da, instalazio horrek bolada bat daramalako funtzionamendurik gabe. Instalazio hori hobetu egin nahi da egoki funtziona dezan, egun eskatzen duen bezalako mantentze-lan sakonik egin beharrik gabe
29	A02	Borinbizkarra auzo-baratzeak	Zehazteko dagoen lurzati huts batean auzo-baratze bat egitea da proposamenaren xedea, inguru horri azpiegitura berde berri bat eskaintzeko aukera emango lukeena.
48	A03	Txakur-parkea	
153	A04	Hiriko parkeak berreskuratzea pertsonen erabil ditzaten	Eskaera hau hiriko parke guztietara zabaldu liteke, eta beraz, bideraezina da. Horrexegatik, izendatutako aurrekontuarekin elementu batzuk jarriko dira hiriko zenbait parketan. Hiri-parkeetan ez dago horrelako altzaririk, baina bai ordea hiriaren aldirietan. Beraz, berritasun bat izango litzateke hiri barruko eremuetan eta zabaldu egingo luke egin daitezkeen erabileren aukera.
95	A04	Mahaiak eta eserlekuak Gasteizko hiri-parkeetan	Eskaera horretan ez denez zenbatzen eta ez zehazten ere zein parketan jarriko litzatekeen instalazio berri hori, balioespen ekonomiko bat egin dute eta gero zehaztuko dituzte kokapenak. Proposamena berez ez da berritzailea, bide batzuk dagoeneko hondatuak daudelako beste une batzuetan zoladura jarri zaien berdeguneetan.
106	A05	Hirian oinez ibiltzeko jendeak parke eta lorategietatik barrena erabiltzen dituen bidezidorrak balioestea	Hiriko bide hondatuei buruz hitz egiten dute proposamenean eta adibide modura astronomoak eta Jacinto Benavente kaleak bereizten dituzten ezpondak jartzen dituzte. Puntu hau, hain zuzen ere, beste une batzuetan ere eskatu izan dute beste bide batzuk erabiliz, baina ezin izan zaio irtenbide bat eman.  Salburua eta Jacinto Benavente kalearen artean pasabide bat egokitzea proposatzen da.

109	A06	Bizikletak eskuz puzteko gailuak	<p>Proiektua idazten den bitartean ikusten baldin bada gutxi gorabeherako aurrekontua behar dena baino txikiagoa dela, aztertu egingo da hiriko beste toki batzuetan nola hobetu daitezkeen bide hondatuak.</p> <p>Merkatuko kostua kontuan izanik, proposatutako kontu-sail hori gehiegizkoa izango da agian, hogeita hamar bat puzgailu jartzea ahalbidetuko lukeelako. Bertan konpontzeko estazioekin batera eginez gero, hamabost bat kokapen izango lirateke.</p>
111	A07	Ortubi	<p>Zehazteko dagoen lurzati huts batean auzo-baratze bat egitea da proposamenaren xedea, inguru horri azpiegitura berde berri bat eskaintzeko aukera emango lukeena.</p>
129	A08	Baratze egokituak	<p>Bai baratze egokituetarako aukerei buruzko alde aurreko azterketa bat egitea eta bai baratze egokiturako elementu bereziak eskuratzeko ere ongi uztartzen dira ingurugiro gaietarako ikastegiaren egungo jarduerekin eta darabiltzan lan-ildoekin.</p>
162	A09	Domingo Beltran kalea garbitzea, argizatzeao eta bizikleten aparkalekua jartzea	<p>Bai Domingo Beltran kalean eta bai Ramiro de Maeztu kalean ere, egun dauden faroletako argi biribilen ordez led teknologia duten beste argi batzuk jartzea eta egokitzea aurreikusten da.</p> <p>Egungo farola-zutoinak aprobetxatuz, eta halaber, lehendik dauden altzarien ordez Gasteizko udalaren modeloko altzariak jarritz.</p> <p>Ez da bideragarria kafetegi bat eraikitzeke eta ustiatzeko emakida bat antolatzea.</p>
165	A10	Taberna eta mahaiak Arriaga Parkean	<p>Halere, askaltzeko mahai finko batzuk jartzea proposatzen da, urte osorako.</p> <p>Ekonomia Sustapenerako Sailean oinarri batzuk prestatzen ari dira Food-trucks bitartez saltzeko baimenak nola eman arautzeko. Horren bidez mugatu egin nahi da nolako furgonetek, hiriko zein tokitan, zein egunetan eta zein ordutegitan saldu ahal izango duten janaria. Ez dago inolako eragozpenik Arriaga parkea ere eremu horien barruan sartzeko.</p>
173	A11	Zabalganatik Armentia basora doan eratzun berdea osatzea	<p>Ibaiatik Gasteizera doan errepidea trafikoarentzat moztea eta bide hori Zabalganako basoaren hegoaldetik luzatzea aurreikusten da, errepide hori nibelean gurutzatzea ahalbidetuko duen ibilbide baten bidez.</p> <p>Autobidearekin elkartu arte luzatuko da bide hori, eta bertan, tunel faltsu bat proiektatuko da bidegurutzea egiteko eta Armentia basoarekin lotura egiteko.</p>
1	B01	Labastida plaza oinezkoentzat bihurtzea	<p>Labastida kalean 11 eta 22 zk.en artean barne-bidea oinezkoentzat bihurtzea da proposamenaren xedea. Espazio hori berrantolatzeak plaza erabiltzeko eremu atseginagoa sortuko luke.</p>
7	B02	Lasarte Parkearen txukuntzea	<p>Proposamen hori bat dator hiri-aldirietan berdeguneak, oinezkoentzako bideak eta bidegorriak egokitzeko estrategiarekin, eta beraz, hiriko eratzun berdea osatzen lagunduko du.</p> <p>Parke gisa egokitu daitezela eskatzen ari diren lursail gehienek jabetza pribatua dute. Lursail publiko bakarrak inguru hori zeharkatzen duten bi bidek okupatzen dituztenak dira:</p>

26	B03	Erdialdeko haur parkeak hobetzea	Aretxabaleta eta Armentia lotzen dituen bidea eta Trebiñarren bidea deiturikoa. Beraz, jarduera horrek bide horietara mugatu beharko luke, eta hondakinak ateratzea, zoladura egitea eta ertzetan landareak aldatzea aurreikusi beharko luke. Jarduera horrek hiri-aldirietan oinezkoentzako ibilbideen sarea eta bidegorrien sarea osatzea ahalbidetuko luke.
22	B03	Erdialdeko haur parkeak hobetzea	Haur-jolasen gainean estalki bat jarrita, eguraldi-baldintzetatik babestuta egongo den eremu bat erdietsiko da, eta horrek instalazioa gehiago erabiltzea erraztuko du.
40	B04	ZABALGANA JOLAS-PARKE BERDEA/ZABALGANA GREEN PLAYGROUND	Haur-jolasen gainean estalki bat jarrita, eguraldi-baldintzetatik babestuta egongo den eremu bat erdietsiko da, eta horrek instalazioa gehiago erabiltzea ahalbidetuko du. Halaber, haur-parkeko jolasen bat osatu edo berritzeko aukera emango du.
75	B05	Nerabeentzako jolas-eremuak aire librean Ibaiondon eta Lakuabizkarran	Ezinezkoa da eskatzen den proposamena garatzea. Halere, lurzatia egokitu eta landare-lurrez berdindu dadila aurreikusi daiteke, eta horren zenbatekoa 20.000 euro inguru izango litzateke.
77	B06	Connect Ibailakua. Belaunaldien arteko parkea aire librean	Proposamena egokia da goian aipatutako baldintzekin
80	B07	Goro parkea hobetzea	Auzoan elementu desberdinak jartzea proposatzen da nerabeek jolaserako erabili ditzaten. Proiektua gauzatzuz gero zehaztuko da non eta zer elementu jarriko diren.
98	B08	Haurrentzako jolas-eremua Jeronimo Roure kalean	Auzoan elementu desberdinak jartzea proposatzen da belaunaldien arteko integrazioa sustatzeko, eta auzokideekin batera zehaztea faltatuko da non eta zer elementu zehatz jarriko dituzten proiektua aurre eramanez gero.
101	B09	Santo Domingo Plaza	Parkeko zintarri guztiak ordezkatzeko ez da bideragarria, horrek ekarriko lukeen kostu handiagatik. Egoerarik txarrean aurkitzen diren eremuak ordezkatzeko proposatzen da: iturri bat jartzea, eserleku gehiago eta paperontzi batzuk ere bai.
118	B10	Aire librean Kalistenia eta ariketak egiteko parkea	Jolaserako eremu berri bat egitea aurreikusten da, edo bestela, kale horretan egun dagoen jolasen eremua zabaltzea.
128	B11	Adineko eta haurrentzako itzalguneak	Aurkeztutako plaza horren ibilerraztasuna hobetzeko helburua duen jardueraren bat aurreikusiko dute Julian Apraiz kaleko hesia zeharkatuko duen pasabide bat irekiz, Arriagako Atea kaletik bertarako sarbidea zabalduz, aldaparen erdiko zatia ordez eskailerak dituen bat jarritz eta jolas-eremu txiki bat jarritz.
160	B12	Zaldiaran plaza hobetu eta apaintzea	Balioespen ekonomikoan bereizi egin dira berez parkea den horren aurrekontua eta estalkiarena. Parkearen aurrekontua aparailu horientzat kalkulaturikoa da, horiek jadanik zoladura duen toki batean jartzen direla suposatuz. Onetsi ondoren, kokapen zehatza finkatuko da.

171	B13	Kirol-zelaiak Aldaian	Oraintxe bi jolas-eremu daude, bat txikientzat eta beste bat handixeagoentzat. Ezinezkoa da eremu horietan jolas gehiago jartzea, horietako bakoitzaren segurtasun-eremua ezin daitekeelako inbaditu.
175	B14	Hospital plaza hobetzea	Zuhaitzei eta landaketei dagokienez, egoki ikusten da eskatutakoa, horma-irudiak margotzea eskatzen duen proposamen-alderdiari dagokionez, baina ez da onartu, udalak dagoeneko baduelako horma-irudien ibilbidea izeneko programa berezi bat. Nolanahi ere, lokalen jabeek horrekin loturiko ekimenak hartu ahal izango dituzte.
17	D01	San Prudentzio Hiribidean egungo trafiko ugaria gutxitzea	Proposamena zuzena da Oso positiboa dela jotzen da, eremu hori hondatuta dagoelako, herritarrak adierazi duen moduan Hiriko inguru sentikor baten egoitza-kalitatea hobetzen du, hirira sartzeko ibilbideetan egun erabiltzen diren laburbideak saihestuz. Abiadura handian dabiltzan ibilgailu askok egun eragiten dituzten arazoak gutxitzen ditu.
21	D02	Kutsadura akustikoa. Bide sentikorrek asfaltatzea	Proposamenaren ondorioak onuragarriak direla iruditzen zaigu, Armentigana kalea-Antoniareneko biribilgunea-Gaztelako Atetik barrena sartu gabe erabiltzen diren ibilbideak laburtzen dituelako, eta hiriko inguru berezi horren gaineko ondorio kaltegarriak ezabatzen dituelako (Erromesen ibilbidea/San Prudentzio hiribidea), izan ere ez baitago prestatua abiadura handiko trafikoetarako eta trafiko-erpin handietarako. Diseinua zehaztu beharko litzateke.
39	D03	Oto hiribideko zubian bazter-babesak kentzea	Jarduera honetan zoladura (bide-zorua) konpondu/berritu egingo da hondatuta dagoen kaleetan, oro har, eta trafikoa gutxitzeko neurriak aplikatuko dira intentsitate handiko eremuetan, eta horri esker, trafikoak eragindako zarataren maila gutxitu ahal izango da. Egun dauden uhinbiko eta hesiak kendu egingo dira eta horien ordean ibilgailuei eusteko elementu bakarra jarriko da pasabidearen kanpo-ertzean, eta halaber, zirkulazio-errien zabalera murriztu egingo da eta oinezkoen espaloiak zabaldu egingo dira.
45	D04	Arabako Gorra elkartearen lokalen irisgarritasuna hobetzea	Proposamena egokia da eta bat dator udalak mugikortasun-kontuetan jarraitzen dituen irizpideekin
59	D05	Oinezkoen pasabidea apaizgaitegiaren aurrean N	Proposatutako obra egingarria da: barrualdean bi aldapa egitea, bi lokaletara sartzeko bi ateak aldatuz, eta halaber, aretora sartzeko atea ere aldatuz. Gaur egungo oinezkoen pasabideen arteko tartea gomendatzen dena baino handiagoa den arren, kontuan hartu beharko litzateke, halaber, horien erabilera oso mugatua dela, oinezkoak izan dezakeen edozein helmuga egungo pasabideek eskaintzen dutelako, antzinako apaizgaitegia izan ezik, baina helmuga hori oso jende gutxik eskatzen du. Nolanahi ere, hori gauzatuz gero, goratua izatea gomendatu genuen, tarteko babesleku batez, eta semaforoetarako aurre-instalazioa zuela (etorkizunean beharrezkoak izango

72	D06	Bide-soluzioak Lakuabizkarran eta Ibaiondon	balira). Oinezkoen pasabide batzuetan segurtasuna eta informazio-seinaleak hobetzea proposamenak koherenteak dira udalaren planteamenduekin, Iruñea eta Baiona kaleen artean semaforoak jartzearena izan ezik, horren inguruan eztabaida gehiago egon daitekeelako Egungo araudiak gutxitu egin nahi du oinezkoarentzako arriskua, zeren eta gerta baitaiteke, semaforoa berde ikustean, ez atzematea tranbiak harrapatzeko arriskuan daudenik. Elementu gehigarrien bidez konpondu daiteke (Esaterako, bolardoak edo baliza argitsuak erabiliz) tranbiaren etorrera iragarriko dutenak. Gainera, onartutako biraketa hori ezabatu beharko litzateke, tranbia basoa kaletik Honduras kalera igarotzean.
86	D07	Honduras kalea eta Konstituzio Plazaren arteko oinezkoentzako igarobide bat hobetzea,	Ibilbide hau hobetzea oso komenigarria dela jotzen da. Salburuako bizilagunek eta ibiltari eta txirrindulariek asko erabiltzen dute bide hau.
15	D08	Salburua-San Kristobal, Adurtza igarobidea hobetzea	Oso komenigarritzat jotzen da ibilbide hau hobetzea. Salburuako bizilagunek eta ibiltari eta txirrindulariek asko erabiltzen dute bide hau.
87	D08	Triana-Salburua tartean oztopo arkitektonikoak kentzea, argizatzea eta asfaltatzea	Düsseldorf kalean biratzeko baldintzak zertxobait hobetzea inbutu erako diseinu batek erraztu egiten du kale baten sarbidea
99	D09	Dusseldorf kalearen sarbidea hobetzea	"Antonio Machado 58 zk."ko markesina oinezkoen pasabidearen ondoren lekualdatzea izango litzateke irtenbide egokiena, eta erdibitzaile lorategiduneko kokatzea, oinezkoak espaloitik joan daitezen ez eragozteko. Era berean, eta TUVISA geltokientzat bide publikoarekin adostutako diseinu-protokoloari jarraiki, plataforma bat jarri beharko litzateke galtzadaren ondoan 20 cm-ko zintarri inklinatu batez (Nantes erakoa), garraio-sarearen ibilerraztasuna bermatzeko.
107	D10	Oinezkoen igarobide arriskutsuak	Hauteman dute proposamenean aipatzen duten hori, baina dena den, ibilerraztasuna hobetzeko xedatutako aurrekontuko gastuak lehentasuna izango du ibilerraztasun plana betetzearen gainetik, eta horrek zenbait jarduera egitea eskatzen du oinezkoen pasabideetan, ibilerraztasuna nabarmen zaila den tokietan, esaterako seinatu gabeko pasabideetan edo behegarunerik gabeko pasabideetan.
116	D11	Gurpildun aulkiek ibilerraztasuna izatea oinezkoentzako igarobideetan	Ibilerraztasun planean aurreikusitako jarduerak egiten aurrera egiteko helburua duen ekintzaren bat aurreikusiko litzateke
125	D12	Luis Olariaga kaleko trafikoa hobetzea	Proposamena desegokia da, ekialdea-mendebaldea konektatzeko aukera nagusietako bat ezabatzen duelako, eta bereziki industrialdeei eragiten die. Latinoamerika plaza gehiegi zamatuko luke, eta hori ez da gomendagarria. Proposamenak neurri aringarri gisa beste alternatiba batzuk jasotzen ditu, hala nola, pasabide goratuak, semaforoak edo radarra, eta hori bideragarria da. Bigarren alternatiba horren espazio publikoari buruzko gutxi gorabeherako balioespen bat dago.

126	D13	Odon de Apraiz ikastetxera irisgarritasuna edukitzea	<p>Lehentasunezko erabilera oinezkoek dutela adierazita egon arren, hauteman izan dute ibilgailu batzuek ezarritako araudiaren aurkako jokabidea dutela eta segurtasunik gabeko egoerak eragiten dituztela.</p> <p>Eskaera-egileak parterreak ezabatzea proposatzen du, zikinkeria-iturri direlako, eta eremu hori oinezkoentzat xedatutako ibilbide bat egokitzeko erabiltzea. Neurri hori ezinezkoa da, bertan dagoen zuhaitz-multzoari eragingo liokeelako, ibilbidearen erdian geratuko zenez gero. Gainera, irtenbide horrek eraldatu egingo luke eremuaren izaera.</p> <p>Irtenbidea hiri-diseinu bat proposatzea izango litzateke, larrialdietarako ibilgailuak eta zamaketa-lanetarakoak bakarrik sartzea ahalbidetuko lukeen araudi baten bidez, eta erabakitako araudi hori betearazi dadila zaintzea.</p> <p>Neurri horrek bermatu egingo luke oinezkoen lehentasuna, eta parterreetan mantentze-lan egokiak egitea ahalbidetuko luke.</p> <p>Kalea erabat oinezkoentzat bihurtzea aztertzen ari dira, bertan dauden ibilgailu-sarreretara doazenei edo handik datoazenei bakarrik igarotzen utziz. Nibelean plataforma bakarra dutela proiektatzen dira kalearen sekzio guztiarentzat, altzari eta zuhaitz berriak jarritz. Ez da aurreikusten alboko plazan jarduerarik egitea, hori sartuko balitz proposamenaren balioespen ekonomikoak gainditu egingo lukeelako programan ezarritako muga.</p>
135	D14	Enrique Eguren kaleko espaloiak eraberritzea	<p>Proposamena zuzena da</p>
167	D15	Judimendi-Olagibel kaleetako zebra-bidea hobetzea	<p>Oso egoki azaldutako aukera bat dela jotzen da, zenbait fasetan jorratzeko aukera dagoelako eta herritarrentzat eta turismoarentzat interesgarria dela jotzen delako, beste euskarri batzuekin uztartu daitekeelako, hala nola Google, eta abar. Horren barruan sartzen diren monumentu-kopuruaren arabera izango da kostua, eta hala, 300.000 €ko gehieneko kostua proposatzen da eta aurrekontu hori ahitu arte jarduerak egiten joango dira.</p>
10	E01	Eraikin historikoetan BIDI edo QR kodea jartzea	<p>Proposamena bideragarria eta interesgarria da, gazteenei arreta egiteko premia horri erantzuten diolako eta harremanak berdintasun-ikuspegi batez izateko aukerak eskaintzen dizkielako, gizarteak egotzi ohi dizkien rol eta estereotipoak zalantzan jarritz.</p>
43	E02	Berdintasunerako eta Ahalduentzako Eskola Txikia	<p>Ikuspuntu tekniko batetik, elikadura-jokabidearen nahasmenduei aurrea hartzeko programa bati begira, proposamen hori bideragarria dela jotzen da, informazio, sentsibilizazio eta heziketa-kanpainen bitartez. Baina proposamenean eremu pribatuei eragiten dieten araudi-alderdi batzuei buruzko beste kontu batzuk ere jorratzen dira eta horietan udalak ez du eskumenik. Beraz, zati batean bideragarria dela balioesten da, eta hala, elikadura-jokabidearen nahasmenduei aurrea hartzearekin loturikoa bakarrik garatu liteke, informazioari, sentsibilizazioari eta heziketa-kanpainei dagokienez.</p>
78	E03	Geen Capital, osasuntsu ikusi nahi zaituen hiria	<p>Ez da horri buruzko balioespenik egiten, askoz ere osatuagoa den beste proiektu onetsi baten barruan sartu delako gai hau eta, txakurren kaken arazoa ez ezik, heziketarekin eta txakurrak</p>
91	E04	Txakurren kakak	

90	E04	Gasteiz City Dog	<p>bezatzearekin loturiko beste batzuk ere jasotzen dituelako</p> <p>Interesgarria izan daitekeen proiektu bat da txakurren eta horien jabeen heziketa sustatu nahi duelako, gaur egun topatzen ditugun egoera iskanbilatsu asko hobetzeari begira.</p>
97	E05	WIFI DENONTZAT. Harrera sozialerako udal zentroan ere bai	<p>Bideragarria</p> <p>Interesgarria izan daiteke, bai kanpotarrentzat eta bai bisitariarentzat ere, eta halaber, turismoaren ikuspegitik hiriko jaiei eta bere tradizioei balio handiagoa ematea.</p> <p>Lortzen diren argazkiak sare sozialetan zabaldu daitezke.</p> <p>Antzeko adibide bat izan daiteke Andre Mari Zuriaren plazan kokatuta dagoen Vitoria-Gasteiz landare-eskultura, bisitariak une oro argazkiak ateratzen baitizkiote.</p> <p>Proposamena oso ongi oinarritua dago eta, arestian esanenez, ongi egokitzen da ingurugiro gaietarako ikastegiaren nahiz osasun publikoaren helburu eta lan-ildoekin. Halere, proposamen zabalduan, gehiegizko garrantzia du atxikitako komunikazio-kanpainak.</p> <p>Beraz, balioespen positiboa egiten da baina zati batean bakarrik. Kalkulatutako aurrekontuarekin (50.000 €) gizarteari zabaldu beharreko edukia eta metodologia (tailerrak, ekintza puntualak, amaierako jaia...) Diseinatu litezke eta garatu. Baina ez dira sartu proposatutako beste eduki batzuk, hala nola, proiektuaren kudeaketarako bulegoa edo komunikazio estrategikoaren plana, horietarako askoz ere aurrekontu handiagoa kalkulatu baitu proposamenak."</p> <p>Kontuan izanik ez dagoela alde aurretik egiten den partaidetza-prozesutik ondorioztatu daitezkeen jardueri buruzko proiekturik definituta, une honetan ez da bideragarria espazio publikoaren aldetik balioespen tekniko bat egitea.</p> <p>Dena den, prozesu hau bideragarria izango da, baldin eta partaidetza-prozesuan, Udalak, Espazio Publikoaren Zerbitzuaren bitartez, edo jorratzen diren gaiek eta horien ondorioek eragin ditzaketen beste batzuen bitartez, parte har bidezake prozesu horretan sortzen diren behin betiko proposamenen hedadura eta mugei buruz informazioa emateko, hirigintza arlokoak izan, ingurumen arlokoak izan, mugikortasun arlokoak izan, eta abar.</p> <p>Gainera, aurrekontu-muga gisa, 200.000 € ezartzen dra, Espazio Publikoan jarduerak egiteko proposamenetan erabiltzeko.</p> <p>Oso proiektu interesgarria da, eta udalaren aldetik jarraipen egokia izatea komeni da, beste hiri-espazio batzuetan eredu gisa erabili ahal izan dezaten, eta ekipamenduen eta espazioaren erabileren premiak definitzeko orduan haurrak kontuan hartuak direla ikus dezaten. Kontuan izanik Etxanobeko eremuek dituzten erabilerak, beren haur-jolasak eta guzti, baita Etxauri plazakoak ere, kirol-jarduera libreetarako erabilerak garrantzitsua izanik, komenigarria izan daiteke Martin Ttipia plazan esku hartzea bideragarria ote den aztertzea,</p>
120	E06	Zeledon Photocall	
124	E07	Osasuntsu Jan	
132	E08	Alde Zaharra: Haurren Auzoa	

147	E09	Gasteizko euskararen mapa egitea: atzoko arrastoak eta gaurko baliabideak	<p>eremu zabal eta oztoporik gabeta eta desmuntatu beharko litzatekeen hiri-altzaririk ez duena delako.</p> <p>Gasteizen euskara balorean jartzea alderdi askotatik bat dator udalaren 2013-2017ko EBPN-en jasotakoarekin. Proiektuak ez du berariaz planteatzen dibertsitatea eta kulturartekotasuna ardatz izatea, ezta genero ikuspuntiko lanketarik ere; hala ere, euskal komunitatea sendotzeko, besteri ezagutarazteko eta elkar ezagutzeko aukera izan daiteke.</p> <p>Era berean, proiektuaren izaeratik eta ibilbide historikoagatik beragatik ere ez litzateke zaila izango aurreko guztiak integratzea eta nabarmentzea.</p> <p>Planteatzen diren baliabideen artean aukeratu beharko litzateke zeintzuk diren bideragarrienak, euren artean uztargarrienak, eta finean, eraginkorrenak egitasmoaren helburuak lortzeko.</p> <p>Monumentua eraberritzeko jarduera-proposamena zenbait legegintzalditan aztertua eta balioetsia izan da. Une desberdinetan, premiazko jardueraren bat egin izan dute monumentua eraberritzeko eta txukuntzeko.</p> <p>Monumentuaren hondamena, beste faktore batzuen artean, ondoko arrazoi hauekin lotua dago: materialen ezaugarriekin (hareharria), ingurumen-baldintzekin, gasteizko klimarekin, jasandako ekintza antropikoekin (pintadak, era guztietako elementuak jartzea) eta egindako eraberritze-lanekin.</p> <p>Eraberritze-lanen ondoren ezinbestekoa da mantentze-lan iraunkor bat egitea, eraberritze-lan horretan egindako inbertsioaren errentagarritasuna bermatzeko.</p> <p>Azkeneko urteetan, Udalak ez du aurrekontu esanguratsurik prestatu udal artelanen multzoa osatzen duten elementuetako bat ere eraberritzeko eta mantentzeko. Beraz, eskultura guztietan horrelako lanei ekiteko ezin atzeratuzko premia bat dago.</p> <p>Gasteizko batailaren omenezko monumentuaren kasuan, gaur egungo egoera mantentzera eta hondamena etetera bideratzen dira, bereziki, eskatutako eraberritze-lan horiek. Eta ez horrenbeste, monumentua eraberritzera.</p> <p>Monumentu horri une honetan beharrezkoa duen sendotasuna eta iraunkortasuna ematea eraginkorra izango da baldin eta, horrekin batera, mantentze-lanen prozesu zehatz eta programatu bat finkatzen bada.</p> <p>Teknikoki egokiago ikusten da prozesu bat proposatzea, alegia, bide publikoan dauden artelanak oro har bilduko dituen jarduera, kontserbazio eta mantentze-lanen plan bat antolatzea.</p>
58, 61, 67, 81, 82, 89	F01	Gasteizko Batailaren omenezko monumentua eraberritzea	<p>Datuak herritarren ikuspegitik aztertzeko eta identifikatzeko aukera bat da, eta halaber, datu horiek udalaren webguneak osatzen duen ekosistemaren barruko plataforma eta euskarrietan barneratzen joateko: open data ataria, gardentasunaren ataria, hiri-adierazleen sistema,</p>
88	F02	Gasteiz zenbakietan	



94 F03

Aldabe gizarte-etxearen behe-solairuko azalera handitzea

auzoak zenbakietan, Geo Vitoria-Gasteiz... Gaien araberrako orrialdeak (adib. Hiria eta ekonomia, azterlanak eta estatistikak, tokiko agenda 21...).

Proiektu hori sustapen ekonomikoaren sailak zuzenduko luke, gardentasunaren eta edukien atalak eta informazioaren teknologiak atalak koordinatuta (web zerbitzuak, GIS, bide digitala). Aldi berean, udal sail guztiek horretan esku hartzea ekarriko luke.

Proiektuaren faseak:

- udal aplikazioek jasotzen duten informazioa identifikatzea
- informazio hori nola ustiatzen den ikertzea
- argitalpena osatuko duten adierazleak definitzeko metodologia bat diseinatzea
- argitalpenak egokitzeko garapen bat egitea (pentaho erara)
- datuak itzultzeko eta mekanizatze lanak egitea
- horren mantentze-lanetarako prozedurak ezartzea.

Aurrekontua:

Langile tekniko gaitasundunak kontratatzea – soziologia profila edo antzekoa: 18.000 euro

Aplikazioak egokitzeko garapena: 20.000 euro

Itzulpen eta mekanizazio-lanak: 6.000 euro

Guztira: 44.000 euro

Gizarte-Etxeak

Aldabe Gizarte Etxeak eremu mugatua du, lurzati murriz baten gainean eraikia dagoelako, eta horrenbestez, arkitektura bertikalean garatu da eraikina, gizarte, kultura eta kirol arloko zerbitzu guztiak bertan biltzearen. Begi-bistakoa da zentro honetako solairurik eskuraerazanak, hots, behe-solairuak, arkitekturaren ikuspegitik erabilera txikiegia duela, sotoaren gainean eremu huts zabal bat duelako.

- Behe-solairu horretan herritarrei arreta egiteko zerbitzuak eta topaketa-aretoa kokatuta daude nagusiki, eta bi zerbitzu horiek ehunka pertsona hartzen dituzte egunero, eta jende gehien etortzen den orduetan, gainezka egin dezakete.

- Zenbait alditan pentsatu izan dute proiektu hau proposatu duen pertsonak eskainitako soluzioan, baina beti alboratu egin dute, ez zutelako horretarako aurrekonturik eta, halaber, beste lehentasun batzuk zeudelako beste ekipamendu batzuetan.

- Proposamen-egileak proposatutako eraberritze-lan horrek aukera emango luke behe-solairuaren eremu hori arintzeko eta Aldabeko herritarren arretarako bulegoetan eraberritze-lan bati ekiteko, izan ere, sare osoan gehien erabiltzen den bulegoetako bat baita.

- Beharrezkoa izango da Hirigintza sailak eta/edo Udala Eraikinen Mantentze Zerbitzuak horri buruzko txosten tekniko bat egitea.

Ekarriko lituzkeen hobekuntzak:

Ebakuazioarekin loturik:

Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak eskatzen digun mugaraino zabalduko litzateke. HAB-HIZak egun okupatzen duen eremua ezabatuta geratzen denez, zabaldu egin daiteke ebakuazio-bidea. Egungo bideak ez ditu zabalerari buruzko gutxieneko baldintzak betetzen gizarte eta kultur arloko eremu osoaren ebakuazioa egiteko, eta obra honek konpondu egingo luke arazo hori.

Kokapenari dagokionez:

Nabarmen hobetuko litzateke. Herritarren informaziorako eta arretarako zerbitzua gizarte-etxearen sarreran geratuko litzateke, eta horri esker, sarreraren gainean kontrol handiagoa egin dezakete eta arreta egiteko zain dauden pertsonen pasabidea arindu egingo luke, egun zentroko sarreraren pasabidea oztopatu egiten dutelako maiz.

Espazioari dagokionez:

Egun duguna bikoiztu egingo litzateke, egungoa oso txikia delako eta ez dagoelako ia lekurik barruan mugitzeko, altzariak kokatzeko, lan-mahai bat edukitzeko...

Zerbitzuari dagokionez:

Herritarrek aukera izango lukete HABan arreta jasotzeko, egungo kokapenean baino pribatutasun gehiagorekin, mahai batean, eserita, gainerako zentroetan egiten den moduan. Itxarote-gela txiki bat jartzeko lekua egongo litzateke, eta HAB erabiltzen dutenek zutik itxaron beharrik ez izateko, sarrerako pasabidea oztopatzen dutela, lehen paragrafoan adierazi den moduan.

Langileei dagokienez:

Lanerako leku isilagoa izango litzateke. Gaur egun, jasanezina da zarata, batez ere arratsaldeetan (topaketa-gela irekia eta hurbilegi dago). HIZ-HABko egungo kabina beiraz hornitutako eremu bat da, inolako isolamendurik ez duena.

Eta argitsuagoa. Kokapen berriak beirate bana du kanpoaldera ematen duten bi hormetan.

Gaur egun, gune hori estua eta luzea da, eta leiho bakarra du mutur batean.

Ebakuaziorako bidea zuzenagoa da. Gaur egun, HIZan pertsonen ebakuaziorako dagoen bidea estua eta bihurtu da.

Hirigintza

Gizarte Etxearen funtzionaltasuna, eraginkortasun energetikoa, ibilerraztasuna eta ebakuazio-baldintzak hobetzearren gaur egun egiten ari diren azterketetan jartzen du arreta.

102-156	F04	Malizhaeza kaleko bide gorria konpontzea	Espaloia eta bide gorria eraberritzea aurreikusten da zoladuraren gainaldea hobetzeko eta, era horretan, bai oinezkoen eta bai txirrindularien joan-etorrietan segurtasuna hobetzeko.
117	F05	Urriaren Hamabiaren kaleko espaloietako bide-zorua aldatzea	Oso komenigarria dela jotzen dute, eremu horretan zoladura hondatua dagoelako Jakina, premia bat da, gaur egun udalaren agertokietako batek ere ez duelako aldapa egokirik minusbaliotasun fisikoa duten pertsonak bertara igo daitezen.
121	F06	Agertoki irisgarriak	Udal agertokietara egokituko den plataforma bat egitea proposatzen da (denetara ezin bada, gehienetara), gurpildun aulkiak igo daitezela aukera emango duen malda batez. Kontuan hartuko da, halere, agertokiaren inguruan metro asko beharko direla dagozkion altuerak gainditu ahal izateko, edo bestela, agertoki irisgarri bat erosi edo alokatu
122	F07	Foru Plazaren irisgarritasuna hobetzea	Oso komenigarritzat jotzen da udalak ibilerraztasunaren alorrean daraman lan-ildoari bere horretan eusten diolako.
136	F08	Posta kaleko jardinerak ezabatzea	Egun dauden jardinerak, eserlekuak eta paperontziak kentzea eta horien ordez hiriko gainerako kaleetan egindako azken eraberritze-lanetan erabilitakoen antzeko eserleku eta paperontziak jartzea aurreikusten da.
138	F09	Honduras kaleko 3, 5 zenbakietako parterrea eta Honduras kaleko tranbia-geltokia urbanizatzea	Proposamena egokia da
149	F10	Aldundia kaleko eta Jesusen Zerbitzariak kaleko hiri-altzariak hobetzea	Egun dauden jardinerak, eserlekuak eta paperontziak kentzea eta horien ordez hiriko gainerako kaleetan egindako azken eraberritze-lanetan erabilitakoen antzeko eserleku eta paperontziak jartzea aurreikusten da.
168	F11	Aiala Kantzilerraren plaza eraberritzea	Oso positiboa dela jotzen da, eremu hori hondatuta dagoelako.